



Programa pilotu batek antzerkia eramango du 500 biztanle baino gutxiagoko Arabako sei udalerritara

Ortzairen “Pinotxo” antzezlanak Zaldondo, Kuartango, Arana, Navaridas, Leza eta Mañuetan emango da, eta aurreikusita dago 2020an beste 12 udalerrri gehiagotan estreinatzea

Gasteiz, 2019ko azaroaren 22a. Ana del Val buru duen Kultura eta Kirol Sailak antzerki ibiltariaren programa berria aurkeztu du gaur, bere edizio pilotuan “Antzerki Ibiltaria Araban zehar 2019an” izena izango duena; horrela, Ortzairen “Pinotxo” antzezlan ezaguna estreinatuko da 500 biztanle baino gutxiagoko Arabako sei udalerritan 2019an.

Valen esanetan, “programa pilotua da, oraindik probatan ari garelako, baina hazi eta jarraitzeko asmoaren sortu da, Ibiltaria deitzen da lurralde osoan zehar zabaldu nahi dugulako antzerkia, batez ere udalerrri txikietara haietara nekezago heltzen delako; eta urtarokoa da, egiten den aroagatik, izan ere uda intentso baten ostean badirudi makalago gabiltzala”.

Sailaren beraren ideia batean oinarritzen da proposamena, udalerrri txikien beharrianak ezagutu nahi zituelako. Hori dela eta, gutuna bidali zien Araban 500 biztanle baino gutxiago daukaten 21 udalerrietara, gauza erraz bat galdezka: “nortzuek nahi zuten parte hartu udalerrri txikira antzerkia eta kultura guk eramango genuen programa batean”, azaldu du Kulturako arduradunak.

18 udalerririk baiezko erantzuna eman zuten; lehenengo seirek badute data 2019an eta gainerako 12ek 2020rako.

Horretarako, izen oneko konpainia eta lan enblematiko bat aukeratu ziren, hain zuzen, Ortzai eta “Pinotxo”. Horregatik izan da Iker Ortiz de Zárate aurkezpenean, bera baita hango arduraduna.

Bukatzeko, esan du Valek “proiektua sortu da jarraitu, sendotu eta hazteko asmoarekin, publiko berria sortzearekin eta lurralde kohesioarekin dugun



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

konpromisoa betetzeko kultura politikan aritzeaz; ondorioz, ondo badabil, datozen edizioetan ere tokiko beste konpainia batzuk egongo dira”.

Egitaraua

- Azaroak 24
 - 12:00etan Zalduondon.
 - 18:00etan Kuartangon.
- Azaroak 30
 - 19:00etan Aranean.
- Abenduak 1
 - 17:00etan Navaridasen.
- Abenduak 7
 - 18:00etan Lezan.
- Abenduak 23
 - 19:00etan Mañuetan.

Emanaldiak doakoak izango dira.